



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: KARRIKA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2019-10-01	19:00	20:40

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Iosune Cousillas eta Agustin Lekuona			
Herritarrak:	Euskaraz: 8		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 5	51-65 urte: 1	>66 urte: 2

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Jexuxek egin du aurkezpena, ez dago galderarik.
Aurrekontuak 2020	Jexuxek egin du aurkezpena, ez dago galderarik.
Oiartzun	Jexuxek egin du aurkezpena, ez dago galderarik.
Auzoa	<p>Udaletxeak aurkezten du aurreko urteko proposamena, plazako parkea kendu eta markesina bat jarritz eserleku batzuekin eta Karrika 38A-ko atzeko parkea handitu. Gerora begiratuta proiektu bat egiteko asmoa dagoela udaletxetik frontoia tapatzeko aurrerago gauzatzeko asmotan.</p> <p>Berrero ere abiaduraren arazoa, aurreko urteko aktan azaltzen da batxeak jartzeko botazioa egin zela eta onartu egin zela, eztabaida sortzen da ez direlako jarri, azalpena da kontzientziario programa eta seinalizazioa jartzeko asmoa zegoela eta udaletxeak onartu du ez duela ezer egin. Beste batek ere esaten du gurasoak ere badutela parte kontzientziatzen.</p> <p>(Iazko aktaren zatia kopiatuta:</p> <p><i>Eskatu da abiadura mugatzeko gomazko kroskak jartzea. Hori hitz egin zela obra aurretik. Erantzun da obra egin ondoren ikusiko zela. Kroska horien inguruan eztabaida sortu da. Arazoari irtenbidea ematearekin adostasuna dago. Bozkatu da gomazko kroskak jartze eta gehiengoa alde dago. Auzo guztietan arazoak daude abiadurarekin. Beste leku batzuetan ere kroskak jarrita ez da lortzen</i></p>



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



abiadura jaitea. Radarraz ere hitz egin da. Hala ere, amaieran onartu dena hau izan da: lehenik kartelak jartzea aipatu da. Plazan haurrak jolasten ari diren seinalea, auzoko sarreran ere kartel handi bat jartzea eskatzen da: auzo honetan abiadura errespetatu... Kroskak plazara sartzeko bi aldeetan eskatu dira: Presondon, Petrine inguruan eta haurreskolako horretan. Batez ere Presondo aldetik sartzen omen dira plazara abiadura handian. Bestalde, auzotarrek ere auzotarren artean kanpaina moduko bat egitea aipatu da. Udaletxean eskuorri batzuk prestatzeko aukera ere aipatu da (abiaduraren inguruan hitz egin dena eta kroskak eta radarra jartzea proposatu direla aipatuz) eta auzotarrek banatu.)

Eztabaidaren ondoren gure aldetik azterketa bat egingo dela adostu dugu.

Zebra pasoa jartzea proposatzen dute plazan baina ez da oso argi ikusten.

Zuntz optikoari dagokionez Karrikako batek kontaktatu zuen Telefonikakoekin eta Telefonikakoek esan zioten beraien proiektuan ingeniariatzatik pasa zirela eta baimenaren bat ez diotela onartu, udaletxetik esaten da Udalean ez dela proiekturik jaso Karrikara fibra pasatzeko, aztertuko dugu kontu hau guztia.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,29
bilera ongi gidatu da	9,00
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,83
Auzotar kopurua	3,67
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	5,71
Saioa probetxugarria izan al da?	7,50
Egunaren egokitasuna	8,29
Orduaren egokitasuna	7,71
Lekuaren egokitasuna	9,71
Batezbestekoa	7,75